

**80. HAMARKADAKO PUNKA ETA
EMAKUMEAREN IRUDITEGIA**

Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministarekin alderaketa

LETREN FAKULTATEA

Historiako Gradua

2019-2020

Ikaslearen izena: Amets Sarasua Zinkunegi

Tutorearen izena: Unai Belaustegi Bedialauneta

AURKIBIDEA

1. LABURPENA	3
2. SARRERA	4
3. HEGO EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA 80KO HAMARKADAN5	
3.1. Hainbat aldaera	6
3.1.1. Feminista independenteak	6
3.1.2. Euskal feminismoa	7
3.1.3. Feminismo instituzionala	8
3.1.4. Zenbait eragile feminista berritzaile	9
3.2. Sexu askapenaren eta abortu eskubidearen aldeko borroka	10
3.3. Jardunaldi feministak	11
4. EUSKAL HERRIKO 80KO PUNKAREN INGURUKO ZONBAIT APUNTE	12
5. EMAKUMEAREN IRUDITEGIAREN AZTERKETA	15
5.1. R.I.P.	17
5.2. Kortatu	19
5.3. Vulpes	21
5.4. Belladona	23
5.5. Matraka	24
6. ONDORIOAK	27
7. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA	31

1. LABURPENA

Lan hau 80ko Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren errepasso bat egiten hasten da. Horretarako, mugimendua osatzen zuten korrante nagusiak, borroka izar gisa ezagutzen den sexu askapenaren zein abortu eskubidearen aldeko borroka eta hamarkada horretako feministen jardunaldi nagusiak aztertuko ditugu. Bigarrenik, 80ko punkak Euskal Herrian izandako berezitasun batzuei erreparatuko diegu. Hirugarrenik, bost punk musika talderen letretan eskaintzen den emakumearen iruditegia garaiko Mugimendu Feministak eskaintzen zuenarekin bat ote datorren aztertuko dugu. Azkenik, ikerketa horren ondorioak plazaratuko ditugu.

2. SARRERA

Gaurko gazte askori ezagunak zaizkigu 80ko gora-beherak. Euskal Herrian luze eztabaidatu da hamarkada hartako mugimendu sozialen inguruan, eta azterketa konstante horri esker, gure artean diraute 80ko mugimendu sozialen hainbat adierazpenek. Norberaren bizipenen arabera, loturak handiagoak edo txikiagoak izan daitezkeen arren, orokorrean, garaiko aldarrikapen sozialek, eta, bereziki, punk mugimenduak pisua dute oraindik Euskal Herriko gazteongan.

Horiek gure generazioaren erreferentzia bakarrak ez badira ere, garrantzia handia dutenez, interesgarria deritzogu 80ko punkera hurbilpen bat egitea. Horretarako, esku artean dugun lan honetan, 80ko Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ezaugarri nagusiak identifikatu eta punk taldeek eskaintzen zuten emakumearen iruditegiarekin alderatuko ditugu. Hala, 80ko euskal punk taldeek eskaintzen zuten emakumearen iruditegia garaiko Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministak aldarrikatzen zuenarekin bat ote datorren argitzen saiatuko gara.

Nire intuiziotik esango nuke, 80ko musika zein bere inguru soziala nahiko matxistak zirenez, punk abestien bidez hedatutako emakumearen iruditegia ere, jendarte patriarkalaren isla zela. Are, alde handia zegoela soilik gizonez eta soilik emakumez osatuak zeuden taldeen artean, eta emakumeen punk taldeak izaten zirela feministen aldarriei doinua jartzen zieten bakarrak.

Aztergai dugun eremu geografiko zein kronologiko honetako punkaren inguruan dezente ikerketa gauzatu badira ere, gehienek, punkaren eta garaiko alderdi politikoen arteko hartu-emanak aztertu dituzte: Euskal Rock Erradikala (hemendik aurrera ERE) etiketaren funtzioa, abestien mezu politikoa, eszena musikalaren bueltan sortu zen gazte mugimendua... Eta beraz, 80ko euskal musikaren inguruko bibliografia zabala existitzen bada ere, lan honen aztergaia orain arte landutakotik urruntzen denez, bibliografia zehatza eta osatua topatzeko oztopoak izan ditut. Edozein kasutan, jarraian, eskuratu ahal izan ditudan baliabideak oinarri hartuta, proposatutako galdekizuna askatzen eta mahaigaineratutako hipotesia zuzena ote den argitzen saiatuko naiz.

3. HEGO EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA 80KO HAMARKADAN

Atal honetan, 80ko hamarkadan Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren egoera zein zen ezagutzen saiatuko gara. Espazio falta dela eta, ezingo gara Ipar Euskal Herriko Mugimendu Feministaren nolakotasunean murgildu, ez mugaz bi aldeetako feministek edukitako harremanean pausatu ere. Iparraldeko feministak erreferente bat izan ziren hegoaldeko emakume askorentzat, eta hortaz, ezbairik gabe, lan honetan baliagarriak izango liratezkeen elementuak topatuko genituzke garatu gabe geratu zaizkigun azterketa horietan. Aberasgarria litzateke, etorkizunean ikerketa lerro horiek jorratu eta esku artean dugun lan hau osatzea.

Zabalak (2005) lantzen duen kontakizunari jarraiki, 80ko Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren fokua Euskal Herriko Emakume Asanbladen Koordinadoran kokatuko dugu. Asanbladen koordinadora Euskadiko Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetakoko asanbladek zein Nafarroako Koordinadora Feministak osatzen zuten, eta bere xede nagusia emakume feministen arteko ekinbide bateratuak sustatzea izan zen. Ildo politiko bat baino, korronte askotako emakumeen elkargunea izan zenez, konplexua da espektrora honetan landu zen edukiaren definizio osatu bat gauzatzea: korronteen eragiteko gaitasuna zein haien arteko harremana aldakorak izan zirelako. Haatik, jarraian, Euskal Herriko Emakume Asanbladen Koordinadoraren funtsa ulertzen saiatuko gara.

Barnebiltzen zituzten ikuspuntuaren arteko ezberdintasunak zirela eta, eztabaida askoren agertoki izan ziren asanbladak. Bi izan ziren nagusienak: alderdi teoriko-politikoaren ingurukoa, batetik, eta borroka-moldeen ingurukoa, bestetik. Lehenengoan, egoera sozi-politikoaren gogortasuna zela eta, akordio eza nagusitu zen arren, bigarrengoan, borroka-molde sutsu eta deigarriak hautatzeko adostasuna nagusitu zen (Aranguren, Epelde eta Retolaza, 2018).

Ñabardunak ñabardura, asanbladen koordinadora bere eraberritzeko gaitasunak ezaugarritu zuela dio Zabalak (2005: 30): *“el movimiento feminista inventó una nueva forma de organización que combinaba varios aspectos clásicos y otros más novedosos”*. Jarraian,

autoreak seinalatutako lau ezaugarriak aipatuko ditugu. Batetik, emakumeek eta emakumeentzat osatutako taldeak zirela, eta horri esker, emakume andana Mugimendu Feministaren parte izatea lortu dela. Bigarrenik, burokrazia ekiditeko asmoz, taldeok funtzionamendu asanblearioa eduki zutela. Hirugarrenik, zentralizazio gutxiko koordinazioari esker, talde lokalen iniziatiba propioa ahalbidetu zuten. Azkenik, aldarri feministen irismena baita borroka-molde berritzaileen bidez, politikaren arau klasikoen haustura gauzatu zutela. Aranguren et al (2018) beste bi ezaugarri gehitzen dizkiote Zabalak emandako Euskal Herriko Emakume Asanbladen Koordinadoraren definizioari: gai espezifikoak lantzeko funtzioa zuten komisioren garrantzia eta alderdi zein sindikatuekiko mantendu zuten autonomia.

3.1. HAINBAT ALDAERA

Euskal Herriko Emakume Asanbladen Koordinadora bertako emakume feministen elkargune izateko jaio zen arren, mugimendu sozial guztietan bezela, Mugimendu Feministan ere kideen arteko aniztasuna talka politiko bihurtu zen; eta horrek, feminismoaren batasuna ezbaiean jarri zuen. Ondorioz, asanbladen koordinadorak martxan jarraitu zuen arren, 70ko azken urteetan eta 80ko hamarka osoan zehar, pixkanaka, feminismoaren korrante jakin batean kokatzen ziren emakume askok dinamika propioak eratu, asanbladetatik aldendu edo bertatik at kokatzen ziren eragile feministak sortu zituzten.

Segidan, 80. hamarkadan zehar izaera propioa izan zuten hainbat korrante feminista aurkeztuko ditugu. Asmoa, diskurtso homogeneizagailuak baztertzea eta hamarkada horretako feminismoak asanbladen koordinadoran zein bertatik kanpo eduki zituen aniztasun eta xehetasunei lekua egitea izango da. Kontuan izan behar dugu, baina, korrante hauek ez zirela bloke zurrinak, eta askotan, batak bestea influentziatzen zuela. Hala ere, jarraian, garaian indar handiena izan zuten korronteen sarreratxo bat egiten saiatuko gara.

3.1.1. Feminista independenteak

Korronte honetako militante gehienak diferentziaren feminismoaren eta militantzia bakarraren baitan lerratzen ziren; hau da, feminismoaren subjektu politikoa emakumea izan behar zela uste zuten, eta emakumetasuna aztertu zein identitate horretan sakontzeko jarduten ziren. Hala definitzen dituzten Aranguren et al. (2018: 140): “erlaldaketa pertsonalari eman zioten lehentasuna. Emakumeen trebatzea bultzatzen zuten, eta haien kezka bihurtu zituzten eztabaidagai”.

Korronte honetako emakumeak Mugimendu Feministaren sorreratik bertatik existitu ziren, eta gehienak, EAEko hiriburu eta asanbladetan zein Nafarroako Koordinadoran hartu zuten parte. Hala ere, herri batzuetan talde propioak sortu zituzten. Esanguratsuenetako bat, 1979. urtean sortutako Donostiako emakume independenteen taldea izan zen. Eragile hori Donostiako emakumeen asanbladako gatazka politikoa kudeagaitzak bihurtu zirelako eratu zen. Korronte honetako beste talde esanguratsu bat 1976. urtean sortutako Lanbroa izan zen (Lucha Antipatriarcal Mujeres Bizkainas Radikales-Revolucionarias Organizadas). Bizkaiako Asanblada Feministan parte hartzen bazuten ere, ildo propioa eta autonomia organizatiboa eduki zuten (ibidem).

3.1.2. Euskal Feminismoa

Euskal Feminismoa garaiaren arabera, eragile baten edo beste baten buelta gorpuztu da. Lau izan dira nagusienak: KAS Emakumeak, Aizan!, Egizan eta Bingune Feminista. Hala ere, azkena aztergai dugun kronologiatik kanpo geratzen denez (2005. urtean jaio zen eta egun jardunean jarraitzen du), lehengo hiruetan jarriko dugu arreta. 1978. urtean KAS Emakumeak izeneko KAS Alternatibaren barne taldea eratu zuten. Hala, azken horrek ezarritako lau helburu estrategikoei (Euskal Herria independentea, sozialista, batua eta euskalduna), KAS Emakumeak bostgarren bat gehitu zion: ez-patriarkala. 1981. urte inguruan, besteak beste, barne gatazkak zirela eta, KAS Emakumeak desegin egin bazen ere, jarraian, talde horretako emakume askoren iniziatibaz Aizan! sortu zuten. Talde guztiek Euskal Feminismoari bere ekarpena egin bazioten ere, baieztatu dezakegu, Aizan! izan zela korronte honen gorpuzte teorikoa gauzatu zuena: zapalkuntza hirukoitzaren teoriaren euskal bertsioa eratu baitzuen (Valero, 2019).

Aizan!en zazpi bat urteko ibilbidearen ostean, bi aurrerapausu nabarmen eman ziren: batetik, KAS Alternatibaren gehiengoak proiektu horren beharra onartzea, eta bestetik, euskal feminismoak bere marko teoriko zein borroka-moldeak finkatzea (Aranguren M. et al., 2018). Horregatik, 1987. urtean Aizan! desegin eta KASen baitako Egizan izeneko erakunde feminista sortu zuten. Eragile honek Euskal Feminismoari egindako ekarpen nagusiak korrante honetako emakumeen antolakuntza zein formakuntzan sakontzea eta haien perspektiba agenda soziopolitikoan sartzea izan ziren. (Valero, 2019).

Laburbilduz, 80ko Euskal Feminismoa definitzeko garaian, hiru fundamentu hartu behar ditugu kontutan. Batetik, sexu-, klase- eta nazio-zapalkuntzaren elkargunean kokatzen zutela borroka feministaren fokua. Bestetik, subjektu politiko gisa Euskal Emakume Langilea kokatzen zutela. Eta azkenik, bi norabide nagusitan egin izan zutela lan: bai Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren baitan kontzientzia feminista sortzeko, baita Mugimendu Feministarengan ENAMen perspektiba politikoa sustatzeko ere (Aranguren M. et al., 2018).

3.1.3. Feminismo Instituzionala

Hego Euskal Herriko Feminismo Instituzionala 80. hamarkadan mendebaldeko herrialdeetan ematen ari zen fenomeno baten adierazpena izan zen. Bere ekimen esanguratsuen Nazio Batuen Erakundeak antolatutako Emakumeen Mundu Konferentziak izan ziren. Horien ondorioz, batetik, hainbat estatu genero politikak, berdintasun-planak zein lege berezituak sortu zituzten, eta bestetik, unibertsitate askotan ikerketa-lerro propio bat sortu zen: genero ikasketak (ibidem).

1986. urtean koka dezakegu Feminismo Instituzionalak EAEn izan zuen lehen ekimen garrantzitsua. Kontua da, 1984. urtean ospatu ziren Euskal Herriko II. Jardunaldi Feministetan, Mugimendu Feministaren gehiengo zabala instituzionalizazioa baztertzearen eta mugimenduaren autonomia babestearen alde lerrokatu zela (Zabala, 2005). Eta ondorioz, 1986. urtean hainbat feministak *Emakumearen arazoa eta Euskadiko Erakundeak* topaketak antolatu zituzten. Bertan, ehun bat emakume batu ziren eta hiru adostasun hauetara iristea

lortu zuten: emakumezko zuzendari bat zuen erakunde bat sortzea, genero-politikak garatzeko beharrezkoak ziren elkarteak bultzatzea eta ikerketa zein dokumentazio guneak sortzea. Bestetik, helburu nagusi gisa Eusko Jaurlaritza zein talde parlamentarioei topaketatako ondorioen berri ematea helburu zuen jarraipen batzorde bat eratu zuten (Aranguren M. et al., 2018).

Hauek izan ziren feminismo instituzionalak Euskal Herrian izan zituen lehen fruituak: 1988. otsailaren 5ean Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko lege-proiektua onartu zuen ahobakarrez Legebiltzarrak, 1989. urteko maiatzean Emakumdek lehengo esku-artze plana argitaratu zuen (emakumez osatutako elkarten errolda zein udalek eskaintzen zituzten zerbitzuen zerrenda eginez, eta EAEn emakumeek bizi zuten egoeraren inguruko ikerketa bat martxan jarritz). Horri esker I. Berdintasun Plana garatzeko aukera izan zuten (ibidem).

3.1.4. Zenbait eragile feminista berritzaile

1984ko II. Jardunaldi Feministekin batera, zapalkuntza forma zehatzagoen lanketa loratu zen Hego Euskal Herrian, eta horri esker, menperakuntza forma espezifikokoak jasaten zituzten zombait taldek borroka zein identitate propioa garatu zuten. Horrela diote Aranguren et al. (2018: 171): “halaxe sortu ziren 80ko hamarkadan zehar lesbianen kolektiboak, emakume gazteen taldeak, etxeko langileen elkarteak, emakume internazionalistak, militarismoaren aurkako emakumeak, emakume okupak...”.

Lesbianen borroka eraginkortzeko antolakuntza forma egokiena zein ote zen luze eztabaidatutako gaia izan da Mugimendu Feministaren baitan. Batzuen ustez, oihiko eragile feministetatik gauzatu behar ziren lesbianen aldarriak, eta besteen ustez, lesbianismoak bere talde propioak sortu behar zituen. Nafarroako lesbianak lehen ereduaren baitan lerrokatu ziren, eta hala, lesbianismo feministaren ereduari jarraiki, Koordinadoraren baitako batzorde propioa sortu zuten. EAEn, aldiz, bigarren ereduaren alde lerrokatu ziren lesbianak, eta horregatik, 80ko hamarkadan zehar, homofobiaren, lesbofobiaren eta transfobiaren aurka aritu ziren lesbianen talde ugari sortu zituzten. 1983. urtean Lesbiana feministen I.

jardunaldiak ospatu ziren Zamalbiden, eta ezberrik gabe, honako hau, lurralde honetako lesbianismoaren gorpuzte prozesuaren une garrantzitsuenetako bat izan zen (ibidem).

Neska gazteek ere sortu zituzten haien espazio feminista propioak. 1984ko jardunaldietan genero problematikak helduei eta gazteei ezberdin eragiten ziela identifikatu ostean, bananduta antolatzen hasteko hautua egin zuten. Hala, 1986. urtean *Desobedientzi gure bidea* lemapean Euskal Herriko Neska Gazteen I. Topaketak ospatu zituzten Orion. Hauek izan ziren bertan landutako gai zentralak: sexualitatea, erasoak, emakumea eta unibertsitatea, emakumea eta landa eremua, harreman pertsonalak, naziotasuna, lesbianismoa, antolaketa ereduak eta Gazte Mugimenduekin eduki beharreko harremana. Neska gazteek gauzatu zuten feminismoaren gauzapenetik zerbait nabarmendu behar bagenu, lanketa teorikoa baztertu eta alternatiba bila praktikara salto egiteko zuten grina litzateke (ibidem).

3.2. SEXU ASKAPENAREN ETA ABORTU ESKUBIDEAREN ALDEKO BORROKA

80ko hamarkadan garatu ziren borroka feministetan bakar bat azpimarratu behar bagenu, abortu eskubidearen alde gauzatutako izango litzateke. Aldarri zehatz hori perspektiba zabalago baten baitan kokatzen zuten, benetako helburutzat, emakumeek haien sexualitatearen gaineko agintea eskuratzea baitzuten. Zentzu horretan, feministentzat auzia ez zen abortua bai ala ez, ezpada, nola eskuratu haien sexualitatearen gaineko agintea eskuratzeko behar zituzten baldintza guztiak. Hala xehatzen du Zabalak (2005: 108) borroka honen jomuga: *“una sexualidad basada en el placer y no en el temor a un embarazo no deseado”*.

Borroka honen pizgarria Basauriko hamaika emakumeren aurkako epaiketa izan zen. Euskal herritar askok emakume horien egoerarekin enpatizatu zuten, oso mediatikoa bilakatu zen kasua, eta horri esker, inputatutako kide guztiak amnistiatzeko Mugimendu Feministaren aldarriak babes zabala jaso zuten. Europako hainbat estatutako legediek abortua hainbat kasutan eta epetan onartzen zutelako kontuan hartuta, kasua irabazitzat zeukaten. Horregatik, egoerak eskaintzen zien oihartzuna baliatuz, abortuaren erabateko despenalizazioaren zein

abortuaren doakotasunaren aldarriak sozializatzen jardun zen Mugimendu Feminista (Zabala, 2005).

Lan-lerro horien defentsan, bi izan ziren ekimen nagusiak. Batetik, *Ni ere adulteriogile naiz* izeneko autoinkulpazioen kanpaina masiboa. Eta bestetik, *Abortatzeko eskubidearen aldeko batzordeen* eraketa. Talde horien funtzioa abortatu behar zuten emakumeak emozionalki zein sozialki babestea eta laguntza materiala eskaintzea izan zen (dirua bilduz, kliniken kontaktuak eskainiz, segimendua eginez...) (ibidem).

Azkenean, 1985. urteko uztailean abortuaren despenalizazio partziala onartzeko lege proposamena onartu zuten. Alta, Euskal Herriko Mugimendua Feminista oso kritikoa izan zen legedi aldaketarekin. Kasu batzuen despenalizazioa onartu bazen ere, ekintzak izatez delitu izaten jarraitu zuelako. Eta beraz, despenalizatutako kasuetan egozgarria ez bazen ere, abortuaren esanahi negatiboak bizirik jarraitu zuen: emakumearengan erruduntasun subjektiboa eta seinalizazio soziala mantenduz (ibidem).

3.3. JARDUNALDI FEMINISTAK

Hamarkada honetan, jatorri eta izaera anitzeko topaketa ugari burutu ziren arren, lan honetan soilik bi jardunalditan jarriko dugu arreta. Batetik, eta formalki gure kronologiatik kanpo geratzen bada ere, 1977. urteko Euskadiko emakumeen lehengo topaketatan, 80ko lehen urteetan zehar Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministak izan zuen eratze prozesua ulertzeko mugarri erabakiorra izan baitziren. Nahiz eta, prestakuntzaren iniziatiba, nagusiki, Bizkaiko Emakumeen Asanbladak eduki zuen, topaketetan korrante anitzetako 3.000 bat emakumeek hartu zuten parte. Aipatzekoa da, Ipar Euskal Herriko zenbait emakume ere bertan egon zirela, eta era inprobisatua izan bazen ere, hitzartze bat gauzatu zutela (Aranguren M. et al., 2018).

Topaketek bi helburu zituzten: patriarkatuaren ikusgarritasuna sustatzea zein bere ezagutza zehatza ikertzea, batetik, eta emakumeen arteko loturak sendotzea, bestetik. Horretarako, jardunaldiak lau ildo nagusitan ardatzitu zituzten: 1) sexualitatea (abortua, antisorgailuak,

masturbazioa, bortxaketak, emakumea eta osasuna landu zituzten ildo honetan); 2) patriarkatua eta militantzia bikoitza ala bakarra (azken hau LKI-EMK eta feminista erradikalen arteko eztabaida izan zen, bakoitzak klase sozialen inguruan zeukan ulerkera ezberdina zelako; lehengoak langilegoaren baitan kokatzen ziren, eta bigarrenagoak, aldiz, emakumea klase propio gisa ulertzen zuten); 3) etxeko lanak eta enplugua; 4) alternatiben lan-ildoak (ibidem).

Bestetik, 1984. urteko II. Jardunaldi Feministetan jarriko dugu arreta: 80ko bigarren zatian Hego zein Ipar Euskal Herriko Mugimendu Feministak eduki zuen garapen prozesuaren baldintzatzaile nagusia izan zelako. Hiru mila bat emakumek hartu zuten parte jardunaldietan, eta aurreko topaketak ez bezala, hauen prestakuntza lanetan bi antolatzaile nagusi ibili ziren: Aizan! eta Euskadiko Koordinadora Feminista. Gerora, topaketek horien arteko harremanean positiboki eragin zuela baloratu bada ere, une hartan hainbat punturen inguruko talka biziak izan zituzten (ibidem).

Topaketen helburu nagusia pentsamendu teorikoan sakontzea izan zen. Azken urte horietan borroka fronte ugari hasi eta espazio berri askotan sartu zirenez, testuinguru berrira egokitzeke, ordura arte sakondu gabe zituzten eztabaida askotan erabakiak hartzeko beharra zuten (ibidem).

Besteak beste, hauek izan ziren eztabaidagaiak: 1) azken sei urteetan aurreratutakoaren zein edukitako gizarte eraginaren balorazioa egitea; 2) korrante feministen arteko ezberdintasunen gainetik, mugimenduaren batasuna ahalbidetzen zuten puntu komunak identifikatzea; 3) etokizunean erabili nahi zituzten borroka-moldeen zein antolaketa-ereduak zehaztea; 4) instituzioekin eduki beharreko harremanaren inguruan erabakitzea; 5) feminismoaren subjektu politikoa nork osatu behar zuen eztabaidatzea (ibidem).

4. EUSKAL HERRIKO 80KO PUNKAREN INGURUKO ZONBAIT APUNTE

Behin 80ko Mugimendu Feministararen nondik norakoa azalduta, garaikide izan zuen punk mugimenduaren nolakotasuna ikusiko dugu. Egingo dugun hurbilpena azalekoa izango bada ere, baliagarria izango zaigu segidan datorren atalean aztertuko ditugun taldeak testuinguratu ahal izateko.

Del Amok (2016) dioenez, bi izan ziren Trantsizioaren bigarren zatian artikulatu ziren gazte mugimenduaren pizgarriak: batetik, gazteriaren behar zein interesak Erregimenaren erreforma ezaugarritu zuten adostasunetatik at utzi zituztela, eta bestetik, Euskal Herriko eskualde askotan gazte langabezia-tasa %40 eta %50 arteko izatera iritsi zela.

Gazteriaren bazterketa sozio-ekonomiko horren oinarrian, gizarte ereduaren krisia zein ekonomiaren birmoldaketarako Kapitala gauzatzen ari zen egokitzapen prozesua zegoela diosku Pascualek (2015). Gainera, punka bazterketa horren aurka altxa zen gazte mugimenduaren funtsezko ardatza izan zela dio, eta horren zergatia ulertzeko, garaian emandako fenomeno baten berri ematen digu autoreak: “el desplazamiento de la centralidad desde lo político como lugar del enfrentamiento hacia lo social y cultural, como espacios naturales de la luchas colectivas”.

Punk mugimenduaren nolakotasuna zirriborratzen hasi aurretik, joera horren adierazpen gehienak barnebildu zituen EREz argipen txiki bat egingo dugu, zehazki, Motak (2017) egiten duen definizioa da ikusiko duguna. Jose Mari Blasco zein Pablo Cabezas kazetariak eta Mario Goñi musika ekoizlea izan ziren 1983. urtean ERE etiketa sortu eta hedatu zutenak. Orokorrean, termino horren bidez izendatu izan da 80ko eta 90ko letra ihardukitzailea eduki duen zein estilistikoki rocketik hurbil ibili den musika oro (punk-rocka, heavy metala, hip-hop, ska, reaggae zein rapa).

ERERen baitan kokatutako musika talde gehienak Herri Batasunaren ingurukoak izan baziren ere, anarkismoaren, akraziaren zein ezker libertarioaren eduki politikoa ere presente egon zen. Talde askok, gainera, Herri Batasunak etiketa horrekiko zeuzkan asmoa zela kanpo geratzea erabaki zuten. Motaren (2017: 29) hitzetan: “*muchas bandas decidieron desligarse de la etiqueta y optaron por renovar su estilo para salir del encasillamiento*”. Hala ere, ERERen eta Herritar Batasunaren arteko harremana bi zentzuetan interesatua izan zen:

bigarrenak lehenaren bidez bere tesi politikoak gazteengan errotzeko aukera zuelako, eta lehenak bigarrenaren bidez, bere musika hedatzeko bitartekoak eskuratzen zituelako.

Punkean sakonduz, etorkizuna ilun ikusten zutenen mugimendu tribal bat izan zela esan dezakegu. Krisiak determinatutako eremu sozial honetan, gazteen aukeragabezia eta ziurgabetasuna egoera iraunkor bilakatu zenean agertu ziren punkaren lehen adierazpenak, eta 80ko hamarkadaren erdialderako, punka bere potentzia gorenera iritsi zen. Punkaren diskurtsoaren bereizgarria izan zen bere eduki kritikoa, antisistema gisa ere ezagutzen dena. Ezezaren erretorika izan zen: gizartetik desagertarazi nahi zituzten elementuen ukapena zein gizartearen erroko eraldaketaren beharraren adierazpena, alegia (Pascual, 2015). Haatik, punkaren leherketa kulturalak eta sozialak, jadanik aipatutako ukapenarekin batera, sorkuntza prozesu oso bat ere konjugatu zuen. Besteak beste, adierazpenaren jabetze autonomoa eta “edozeinek egin dezake” ideari esker, oinarrizko jakintza teknikoez jabetu edo kulturaren birdefinizioa egin zutelako (Del Amo, 2016).

Beste edozein musika estilok bezala, 80ko Euskal Herriko punkak ere eduki zituen barne joerak. Unearen edo abestiaren arabera taldeek dauzkaten ñabardurak aldakorrak dira, eta hortaz, ezinezkoa da aldaeren arteko bereizketa zurrun bat egiten, haatik, abestien mezuei erreparatuz gero, bi aldaera nagusi bereiz ditzakegu. Horrela definitzen ditu Altunak (2010: 27) barne joerak: “punkak bere konplexutasunean tendentzia ugari ekarri zituen, *no future*, nihilista eta autosuntsitzailleetatik, erresistentziaren punk ekintzaile eta kontsekuenteetara”.

Atal honekin amaitzeko, 80ko hamarkadako Euskal Herriko punkean emakumeek izan zuten parte-hartzearen inguruko pare bat aipu egingo ditugu. Pascualek (2015: 150) dio ordura arte emakumeek eszena musikalean parte-hartzeko zeuzkaren aukerak oso mugatuak zirela: “*papeles establecidos para estas como vocalistas o grupies*”. Aztergai darabilgun abagunean, berriz, ezarritako rol horiek hautsi eta emakumeek lehen rock taldeak sortu zituzten. Hala ere, gai honi dagokion iritzi irmoa dauka Lopezek (2011: 432): “*sin quitarle el valor que tuvieron y tendrán, los grupos de chicas han sido una gota en el océano de la aportación musical femenina al rock*”. Hala eta guztiz ere, euskal emakume taldeak guztiak kontatuta, orotara 64 izan direla dio autoreak.

Ezaguna den bezala, emakumeez osatutako punk taldeek erreakzio negatibo ugari sortu zituzten. Pascualen (2015: 152) hitzetan: “*se permitían decir lo que les venía en gana y esto era una actitud que no casaba demasiado bien con los cánones establecidos por los bienpensantes, guardianes de la moralidad, empeñados en adjudicar permanentemente papeles de sumisión al sexo femenino*”. Hala ere, autoreak dionaren arabera, punkean aritu ziren emakume horiek ez zuten inolako zio bereziturik eduki, hau da, gizonen motibazio berberetik bultzatu zituztela punkaren bidez adieraztera.

5. EMAKUMEAREN IRUDITEGIAREN AZTERKETA

Jakina den moduan, lana honetako azterketa objektua 80ko hamarkadako Mugimendu Feministaren eta garaiko punk musikaren arteko harremana da. Horretarako, 80ko Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ezaugarri esanguratsuenak nabarmenduko ditugu, ondoren, 80ko punk eszena markatu zuten bost musika talderen letrekin alderatzeko.

Aipatuko ditugun ezaugarriei emandako trataera eta kronologia korrante feminista bakoitzaren arabera ezberdinak izan ziren arren, guztiak ibili ziren, maila batean edo bestean, lan-ildo hauetan konprometituta. Zerrendaren hurrenkerak ez du gaien garrantzia maila adierazten: 1) orain arte honen inguruan sakonki jardun ez bagara ere, jakina da, orokorrean, patriarkatuaren eta, zehazki, indarkeria matxistaren aurkako borroka izan zela 80ko emakumeak feminismora hurbildu zituen arrazoi nagusietako bat (bereziki, senarrak emaztearekiko gauzatzen zuenaren aurkakoa); 2) norberaren sexualitateaz askatasunez gozatzeko borrokaren baitako abortu eskubide legal, publiko eta doakoaren defentsa; 3) emakume kategoriatik haratago, zapalkuntza zehatz bat jasaten duten hainbat identitate subjektu politiko gisa artikulatzeko lehen esperientziak; 4) Mugimendu Feministaren eta instituzioen arteko harremanak onura edo kalte gehiago egiten zuen argitzeko eztabaidak.

Hamarkada horretako boom musikala kontuan hartuta, azterketa bideragarria izateko, bost talderen aukeraketa egin dugu. Bi izan dira hautaketa hori gauzatzeko erabili ditugun irizpideak: batetik, Euskal Herriko 80ko punkak eduki zituen bi aldaeratako taldeen ordezkariak bermatzea, eta bestetik, gizonen musika taldeek egindakotik haratago, emakume

musikarien lana ere kontuan hartzea. Horregatik, hauek izan dira aukeratutako taldeak: aldaera nihilistaren ordezkari gisa R.I.P. eta Vulpes, eta alderaketa borrokalariagoaren ordezkari gisa Kortatu, Belladona eta Matraka. Ulertzen dugu, emakume taldeek punk mugimenduan suposatuz zuten portzentaiarekin alderatuta, lan honetan errepresentazio oso altua izango dutela, eta horrek punkak eskaintzen zuen emakumearen iruditegi erreala distortsionatu dezakeela. Hala ere, ahal dugun neurrian, arrisku hori ekiditen siatuko gara, horretarako, emakume taldeen ekarpena kuantitatiboki beharrezan, kualitatiboki neurtuko dugu.

Talde horien letrak aztertzerako garaian, lehenik eta behin, genero problematika zenbat abestitan agertzen den zenbatzeko ariketa bat egin da eta, jarraian, presentzia hori ebaluatu ahal izateko, bi irizpideren arabera sailkatu dira. Batetik, genero problematika abestiko gai zentrala den ala soilik aipu zehatz bat egiten zaion. Eta bestetik, abestietako presentzia hori Mugimendu Feministatik nabarmendutako ezaugarriekin bat datorren ala esanahi negatiboa duten. Azterketarekin beraren nondik norakoak azaltzen hasi baino lehen, ikerketatik ateratako datuekin osatutako taula bat ikus dezakegu. Sintesi honek irakurketa osatu bat eskaintzen ez badigu ere, bitarteko eraginkorra da azterketaren azaleko ideia bat lortzeko.

TALDEA	ABESTI kopurua	PRESENTZIA		EDUKIA	
		Gaia	Aipua	MF	Negatiboa
R.I.P.	28	2	3	1	4
KORTATU	38	0	5	2	3
VULPES	12	4	4	7	1
BELLADONA	10	1	3	3	1
MATRAKA	20	7	3	10	0

Taula 1: autoreak egina.

5.1. R.I.P.

Talde arrasatear honen jatorrizko izena Doble Zero izan zen. 1979. urtetik 1980. urtera arte jo zuten izen horrekin, eta ondoren, haien gustokoa ez zenez, R.I.P. izena bereganatzea erabaki zuten. Hasierako partaideak Txerra eta Jul Bolinaga anaiak eta Eduardo Mancebo *Portu* izan ziren, eta, hurrenez hurren, bateria, gitarra eta baxua jotzen zituzten. Kontzertuak eskaintzen hasteko abeslari bat behar zutenez, Juan Luis Mallabi abeslari gisa sartu zuten. Nahiz eta, azken honek soldadutza egin behar izan zuenez, Karlos *Mahoma* fitxatu zuten (Alonso y Uriach, 2018).

Taldearen konposizioaren eta letretan bilakaerari erreparatuta, taldearen esentzia zuzen eta basatiaren baitan, hiru aldi bereiz ditzakegu. Lehenengoa, punk77 estilokoa eta letra *makarrenak* dauzkana. Bigarrenengoa, punk-hardkor estilokoa, aurrekoa baino askoz azeleratuagoa eta letra nihilistaz zein probokatzailerez osatua. Eta hirugarrena, punk-rock estilokoa eta letra politikoenak dauzkana (ibidem).

R.I.P.ek, 80ko hamarkadan, Escorbutorekin partekatutako diska bat, maketa bat eta diska propio bat argitaratu zituen, hurrenez hurren: *Zona Especial Norte* (1984), *R.I.P. zuzenean* (1985) eta *No te muevas* (1987) Hiru argitalpenei esker, hogeita zortzi abesti grabatu zituzten. Emakumearen auzia gai zentrala da abesti horietako bitan (*Putá* eta *El violador*), eta aipu zehatzak barnebiltzen dituzte beste hiru abestik (*Incorruptible*, *Enamorado de la muerte* eta *Pisar la sociedad*). Bost abesti horien artean, batek Mugimendu Feministatik nabarmendu ditugun ezaugarrien inguruan hitz egiten du, eta beste lauk, aldiz, esanahi negatiboa dute (*Putá*, *Incorruptible*, *Enamorado de la muerte* eta *Pisar la sociedad*).

Punk-rock musika talde honen genero problematika gai zentral gisa lantzen duten abestiak zeharo ezberdinak dira: batean emakumea guztiz mespretxatzen dela, eta bestean, 80ko Mugimendu Feministaren aldarri garrantzitsuenetako bati doinua jartzen zaiola. Lehenik eta behin, *Putá* abestian jarriko dugu arreta: “*sube hasta el parque, siéntate, allí algún guayo te dirá, la mamada por un champán, eres una guarra de verdad, puta, puta, eres la marrana del champán, puta, puta*”.

Zabalaren (2005) ustetan, indarkeria matxistak emakume asko lehen pertsonan kaltetzeaz gain, hedatzen duen beldurraren bidez, beste asko zehar-biktima bilakatzen ditu; ondorioz, “arriskuak” ekiditeko asmoz, emakumeek haien ekintza askatasuna mugatzea ohikoa dela dio. Ezbairik gabe, abesti honek Zabalak aipatutako indarkeria matxistaren efektu hori indartzen duela baieztatu dezakegu.

Bigarrenik, hala dio *El violador* abestiak: “*persigue, castiga al violador, nunca más irá a por ti, esto no es ninguna pesadilla, es la puta realidad, son como ratas de alcantarilla, esos violadores que ahí están, que asco dan*”. Eta beraz, kantu honen edukari dagokionean, 80ko Mugimendu Feministatik nabarmendu dugun lehen ezaugarriarekin guztiz bat datorrela baieztatu dezakegu. Izan ere, eraso matxisten aurkako adierazpen bat da, eta abesti horrek egiten duen bezala, indarkeria mota horri ikusgarritasun soziala ematea, Zabalaren (2005) arabera, indarkeria matxistaren aurkako borrokan Mugimendu Feministaren zeregin handienetakoa da.

Bestetik, genero problematika soilik zeharka lantzen duten R.I.P.en hiru abestiak dauzkagu. *Incorruptible* iruzkintzeko, kontuan izan behar dugu, 80ko hamarkadan emakumeen egoera hobetzeko lege-aldaketa asko egin baziren ere, hegemonikoa, familia-eredu tradizionalaren alde lerratzea zela (Aranguren et al, 2018). Eta beraz, kanta horrek oso-osorik, letra negatiboa daukan arren, “*mujeres podridas a barrer, para que vea la vecina*” dionean, era inkontzientean bada ere, orduko Mugimendu Feministak babesten zuenaren aurka, familia-eredu tradizionalaren sostengu den sexuaren araberako lan-banaketan babesten duela.

Bestetik, “*viólale a una niña boba*” dion *Pisar la sociedad* daukagu. Alonsok eta Uriachek (2018) esaten digute, edozein testuinguru artistikotan, baina, bereziki punk-rock musikan esandakoak ez direla hitzez hitz hartu behar. Autoreek gehitzen dutenaren arabera, R.I.P.en funtsetako bat munduarekiko duten amorrua adieraztea, eta zehazki, “*meterte con los pijos*” da. Bi elementu horiek aintzat hartuta ere, abesti hau Mugimendu Feministak 80ko hamarkadan egindako lanaren aurka doala baieztatu dezakegu.

Hirugarrenik, *Enamorado de la muerte* abestia daukagu, besteak beste, halako baieztapenak egiten dira bertan: “yo ya tengo novia, ya encontré mi amor”, “ la otra noche la besé”, “es alta y morena”, “cuando me dió un beso, la reconocí”, “y vi que era bella” eta “su belleza me atrapó”. Zabalak (2005: 99) dio, garaiko abortu eskubidearen zein askatasun sexualaren aldeko borrokan zeukaten oztopo nagusietako bat “*planteamiento ideológico relacionado con la apropiación y el control del cuerpo de las mujeres y de su sexualidad*” zela. Hala, abesti honetan emakumeaz eskaintzen den iruditegia Mugimendu Feministak eraitsi nahi zuen irudi patriarkalarekin bat datorrenez, trataera negatiboa daukala baieztatu dezakegu.

80ko hamarkadako punk taldeek abestietan erabiltzen dituzten irainak sakonki aztertu ez baditugu ere, aipagarria da R.I.P.en letrek jasotzen duten irain sexita eta homofobo kopuru altua. Horren adibide dira, *Pisar la sociedad* abestiko “*llámales hijos de puta*” eta “*esta puta sociedad*” edo *El pastor* kantuko “*por el culo te querrán dar*”. Ezbairik gabe, irain hauek Mugimendu Feministaren ezaugarriekiko aurkakotasuna adierazten dute.

5.2. KORTATU

Fermin eta Iñigo Muguruzak zein Mattinen artean sortu zuten taldea, nahiz, azkenaren postuan Treku Armendariz sartu zen beranduago. Hurrenez hurren, abeslaria eta gitarra-jotzailea, baxu-jotzailea eta bateria ziren. 1983. urtetik 1986. urtera bitarte aktibo egon zen punk-rock talde bat izan zen. Euskal Herriko punk taldeen bigarren olatuaren baitan sortu bazen ere, eduki zuen zabalpen azkarra zela eta, segituan musika talde ezagunenaren artean kokatu zen. Are gehiago, masak erakartzeko zuen gaitasuna zela eta, punk mugimenduaren baitako elkarguneetako bat izan zen. Kortatu definitzeko garaian, hiru elementu izan behar ditugu kontutan. Lehenik, hainbat musika joeratako erreferentziak biltzetik haratago, probatu zituen estilo guzti horien sintesi propioa egin zuela (Herreros y López, 2013).

Bigarrenik, La Polla Recordsekin batera, aitzindaria izan zela frankismo berantiarreko *canción protestatik* urrundu eta musikaren politizazioa berri bat ezartzen. Hala ere, argi izan behar dugu, Muguruza anaien ustez, haien ekarpenak ez zuela aurreko belaunaldiekin hautsi, ezpada, kantautoreetatik bizirik geratzen zen indarraren radikalizazioa burutu. Hori dela eta,

punkaren eta kontrakulturaren arteko harremana jarraipenaren eta hausturaren konbinazio berezi gisa definitzen dute (ibidem).

Hirugarrenik, eta bukatzeko, Kortatu Herri Batasuna eta gazte mugimenduaren arteko zubi bat izan zela. Akaso beste talde askotan hala izan bazen ere, funtzio hori ez zuten presioagatik bete, baizik eta, Kortatuko kideek mugimendu abertzalearen baitan paper politiko bat bete nahi zutelako. Horren adibidetzat har dezakegu, haien autonomia erlatiboa beti mantendu bazuten ere, HBrekin eduki zuten harremana beste talde askok eduki zutena baino organikoa eta baketsuagoa izan zela. Aipatutako hiru bereizgarriengatik, Kortatuk jardun artistiko soila egitetik urrun, ekarpen militantea egiten zuela baieztatzen da (ibidem).

Kortatu (1985), *El estado de las cosas* (1986), *Kolpez kolpe* (1986) eta *Azken guda dantza* (1989) izan ziren talde honek argitaratutako diskak, eta lau horien artean, hogeita hemezortzi abesti grabatu zituzten. Bakar batek ere ez du genero problematika gai zentral gisa lantzen, baina, bost abestik aipamen zehatzak dituzte: *Tolosa, iñauteriak* (Mauriziaren introan); *Tatuado*; *Jaungoikoa ta Lege Zaharra*; *Esto no es Oeste, pero aquí también hay tiros* (*A Billy the kid*) eta *Denboraren menpe*.

Hauek dira, eduki negatiboa daukaten abestien izenburu eta aipuak: *Tolosa, iñauteriak* Mauriziaren introan “gizonak behar badau bere deskantsue, andrea kuiau daila zaharra ta antzue”; *Tatuado* “*era de otro la única mujer que amabas*” zein “*mi madre, la única mujer que he amado*” eta *Esto no es Oeste, pero aquí también hay tiros* (*A Billy the kid*) “*materna sangre*” zein “*Santa Virgen de Guadalupe*”. Aipuak dauzkaten bost abesti horietako bi Mugimendu Feministatik nabarmendutako ezaugarriekin bateragarria dira eta hiruk esanahi negatiboa dute.

Kortatuk egiten dituen lau aipu negatiboak oso sotilak diren arren, abestiok etxeoandre, ama zintzo edo sexualki purua den emakumearen iruditegia erreproduzitzen dute. Eta beraz, aipu horiek ia oharkabean pasatzen badira ere, garrantzitsua da Mugimendu Feministaren aldarriekin aurkakotasunean sartzen diren letrak direla aitzat hartzea.

Bestetik, kontuan izan behar dugu, positiboki baloratu ditzakegun beste bi abestiek ere, ez dute Mugimendu Feministarekin inolako lotura espliziturik. Hauek dira abesti horien izenburu eta aipuak: *Jaungoikoa ta Lege Zaharra* “ta sorginak akelarretan” eta *Denboraren menpe* “esango dit (...) Aliziak”. Agerikoa den bezala, letra horiek ez dira nabarmendu ditugun ezaugarrien baitan kokatzen. Haatik, jakina den bezala, Mugimendu Feministak bere buruaren errepresentazioa egiteko, maiz, sorginen esanahi eta sinbologia erabiltzen ditu; eta hortaz, aipu hori emakumeen askatasunaren aldeko keinu gisa identifika dezakegu. Gainera, punkean emakumezko figurei egindako aipuen existentzia eza oso hedatua zegoenez, Kortatuk bi abesti horietan emakumeak zuzenean aipatze hutsa positiboki baloratu dezakegun detalle bat da.

5.3. VULPES

70eko hamarkada bukaerako feministek *all-girls-bands* sortzeko edukitako grinaren fruitua izan zen Vulpes (Mendieta, 2019). Taldea lau emakumek osatu zuten: Loles Vazquez gitar-jotzailea, Mamen Rodrigo abeslaria, Begoña Astigarraga baxu-jotzailea eta Lupe Vazquez bateria-jotzailea. Punk-rock talde barakaldotarrak ibilbide motz baina bizia izan zuten; jakina den bezala, *Me gusta ser una zorra* abestiaren harira sortu zen iskanbila dela eta, taldea eratu eta bi urte eskasera desegin egin baitzen. 1983. urteko apirilaren 13an TVEko *Caja de Ritmos* programan egindako emankizunean The Stooges taldearen *I Wanna Be Your Dog* abestiaren *Me gusta ser una zorra* bertsioa jo eta taldearen ospea goizetik gauera hazi zenean hasi zen Vulpesen buruhaustea (Altuna, 2010).

Hala, pistola-tiroa ABC egunkari eskuindarrak abestiaren letra argitaratu izana izan zen, eta horren atzetik etorri ziren gainerako deskalifikazio zein oldar guztiak. Eraso azpimarragarrienak, batetik, Estatuko Fiskaltza Nagusiak Caja de Ritmos saioari kereila kriminal bat ezarri eta telebista saioaren zuzendari zen Carlos Tenaren zein TVEko lehendakaria zen José María Calviñoren dimisio eskaera, eta bestetik, taldeko kide zen eta *Me gusta ser una zorra* abestiaren letra idatzi zuen Loles Vazquez eskandalu publikoagatik salatu izana izan ziren (ibidem).

Hala, iskanbilak sortutako presio zein gogait guztia zela eta, 1984. urtean taldeak desagitea erabaki zuen. Gerora, 2003. urtean, taldeko bateria-jotzailea zen Lupe Vazquezen heriotzaren hamargarren urteurrena ospatzeko kontzertu batzuk eskaini zituzten. Gainera, elkartzea baliatu eta 2005. urtean *Me gusta ser* izeneko diska argitaratu zuten. Izan ere, 80ko hamarkadan, soilik *Me gusta ser una zorra* eta *Inkisiçion* barnebiltzen zituen diska soil bat kaleratu zuten, eta beraz, gainerako abesti guztiak grabatzeko aprobetxatu zuten abagunea (Vulpes, 2013).

Jadanik aipatu dugun bezala, Vulepesek diska motz bat eta diska luze bat argitaratu zituen, hurrenez hurren, *Vulpess* (1983) eta *Me gusta ser* (2005). Denera hamabi abesti grabatu zituzten. Genero problematika gai nagusitzat duten lau abesti daukate (*Sexo por la cara*, *Pasa de mi*, *Yo les mando a la mierda* eta *Me gusta ser una zorra*), eta gaia zeharka aipatzen duten beste lau (*Inkisiçion*, *Anarkia TV*, *El fraude*, eta *Punks de plastico*). Zortzi abesti horietatik batek esanahi negatiboa dauka (*Anarkia en TV*) eta gainerako zazpiek bat egiten dute Mugimendu Feministaren ezaugarri nagusiekin.

Genero problematika lantzen duen punk abesti bat izendatu behar bagenu, ziur aski, gutako gehienok Vulpesen *Me gusta ser una zorras* kantaz gogoratu ginateke. Abesti horrek emakumearen askapen sexualaz ez ezik, askapen orokor batez hitz egiten du. Horregatik, *Sexo por la cararekin* eta *Yo les mando a la mierdarekin* batera, Mugimendu Feministatik nabarmendu dugun bigarren ezaugarriaren baitan kokatuko dugu. Mendietaren (2019) ustetan, punkak zeukan izaera subertsiboari eta talde ez profesionalek zuten ongi etorriari esker, garaiko punk emakume taldeek gai berritzaile asko txertatu ahal izan zituzten. Besteak beste, hilerokoa bortxaketa edo masturbazioa aipatzen ditu, eta kantu sorta hau, logika horren baitan koka dezakegu.

Pasa de mi patriarkatuaren eta indarkeria matxistaren aurkako abesti bat da, eta *Inkisiçion* eta *El fraude* abestiek ere, modu batean edo bestean, kristautasunak ezarritako emakumearen iruditegiaren aurka egiten dute. Horregatik, Mugimendu Feministatik azpimarratu dugun lehen ezaugarriaren baitan koka ditzakegu. Horrela mintzo da Pascual (2015: 153) Vulpesen jarreraz:

El hecho de tomar parte activa en las relaciones que pone en juego el sexo indica una voluntad de autodeterminación por parte de estas mujeres punk, que reivindican el derecho al uso libre de su cuerpo y su no dependencia del poder externo de los machos.

Mendietak (2019) esaten digunaren arabera, 80. hamarkadan Euskal Herrian emakumeen aldeko hogeita hamar bat abesti ekoitzi ziren, baina, hala ere, argi dago abesti guztiek eskaintzen duten emakumearen iruditegia ez dela positiboa. Azken horietako bat da “*Para una pija contando cotilleos*” eta “*al Felipe o al Oreja o al Papa con una vieja*” dion *Anarkia TV* abestia. Edozein kasutan, aipu horiek Vulepesek egindako ekarpenean nahiko pasadizozkoak direnez, ez gara bertan pausatuko.

5.4. BELLADONA

Iruñeako talde hau laukote batek osatu zuen: Aurora Beltran (gitarra), Josebe Garialde (ahotsa), Puri Alzelai (baxua) eta Maria Cerrato (bateria). Gazteak izan arren, esperientzia dunak ziren: Aurora Beltranek hamahiru urteetatik gitarra jotzen zuelako eta Josebe Garialdek aurrez Pabellón Negro taldean abestu zuelako. Belladonak urtebete inguruko ibilbidea izan bazuen ere, *Las mujeres y los negros primero* diska argitaratu zuten. Diska osatzeko hainbat lagunaren parte-hartzea izan zuten: azala Dora Salazar artistak diseinatu zuen eta Fibre taldeko kideen zein Txangot taldeko Txarlieren ekarpen musikala ere jaso zuten (Belladona, 2013).

Belladonak *Las mujeres y negros primero* (1986) izeneko diska bakarra argitaratu zuen. Bertan hamar abesti grabatu bazituzten ere, sarean zazpi besterik ezin izan ditugu topatu, eta beraz, beste hirurak azterketa honetatik kanpo geratuko dira. Honako hauek dira lan honetan kontuan hartuko ez ditugun abestien izenburuak: *Odio a muerte*, *Dime quién* eta *El último grito*. Gainontzeko zazpi abestietatik *Macho de primera* da genero problematika gai zentral gisa lantzen duen bakarra, eta beste hiruk aipamen zehatzak egiten dizkiote: *Educación*, *Te hará sentir mejor* eta *Mambrú*. Lau abesti horietako batek, *Mambrú*, negatiboki lantzen du gaia eta beste hirurak bat datoz Mugimendu Feminsitaren ezaugarriekin.

Macho de primera gizarte patriarkala erreproduzitzen duten gizonek emakumeengan duten eraginaz mintzo zaigu: “*ensucian de mierda la sexualidad, importa la forma, todo les da igual*” eta “*no somos estrechas, nos gusta gozar, con tíos de igual a igual*”. Zapalkuntzen salaketa, Pascualen (2015: 150) ustetan, punkaren esentzian kokatzen den jarrera bat da: “*sobre todo se sumerge en la cotidianidad e indaga en los elementos donde se manifiesta cualquier evidencia del poder*”. Abesti honek, gainera, garaiko Mugimendu Feministak sustatzen zuen norabide berean egiten du seinalamendua: denuntzia juridikotik haratago, eraso norberaren sozializazio espazioetan salatuz (Zabala, 2005). Horregatik, abesti hau, 80ko Mugimendu Feministak landu zuen patriarkatuaren zein indarkeria matxistaren aurkako borrokaren baitan koka dezakegu.

Bestetik, *Educación* eta *Te hará sentir mejor* abestiak dauzkagu: “*señores no me interesa, mi bandera de la desobediencia*” dio lehenak, eta “*una noche de amor, te hará sentirte mejor, yo ya quisiera, sudamos la escalera, vamos a hacer el amor*” bigarrenak. Abesti hauek ikuskera patriarkalak emakumeen sexualitate askeari ezartzen dizkion mugez hitz egiten dute. Altunak (2010: 13) dion bezala: “*rookean sexualitatearen espresioa modu irekiagoan ematen da beste praktika kulturaletan baino, eta horregatik rocka moralitatearen inguruko eztabaiden terrenoa izan da bere hastapenetatik.*” Zentzu horretan, argi eduki behar dugun abestiok egindako ekarpena ez zela 80ko Mugimendu Feministaren borroka zabaltzera mugatu, ekarpen kulturala egin baitzuten sexualitatearen eredu askatzaile baten eraketa prozesuan. Izan ere, punkaren bidez, musika zerbait esateko tresna izatetik, komunitatearen baitan zerbait egiteko tresna izatera pasatzen da (Herrerros y López, 2013).

Azkenik, Belladonaren *Mambrú* abestiak aipu homofobo bat jasotzen du: “*Mambrú qué es lo que eres, un hombre o una nena*”. Aipamen hau 80ko Mugimendu Feministen aldarrikapenen aurkakotasunean kokatzen den arren, zuzenki emakumearen iruditegiak hitz egiten ez duenez, beste baterako utziko dugu bere azterketa.

5.5. MATRAKA

Belladona taldea desegin ostean, Aurora Beltranek Tahúres Zurdos taldea osatu eta bertan gitarra-jo eta abestu zuen hamazazpi urtez. Belladonako gainerako hirurek (Josebe Garaialde abeslariak, Puri Alzelai baxu-jotzaileak eta Maria Cerrato bateria-jotzaileak) Janis Ortiz gitarristarekin batera, Matraka musika taldea osatu zuten (Matraka - las chicas son guerreras, 2013). Fitxaje horren sarrerarekin batera, Matrakaren doinuak gogortu egin ziren. Hala dio Lopezek (2011: 425): “*Las Matraka evolucionaron hacia el punk*”.

Taldeko partaideak, baina, diskaren arabera aldatzen joan ziren. Lehen diskan, aipatutako lau kideez gain, Jimmy Arrabit bateria-jotzaileak ere parte hartu zuen. Bigarren diskan, aldiz, Josebe Garaialdek eta Maria Cerratok ez zuten parte-hartu, eta haien ordean, Aliacia eta Walo batu ziren (Matraka - las chicas son guerreras, 2013). Martxan 1987. urtean hasi baziren ere, lehen diska ateratzerako, hiru urte pasa ziren. Hala, *Gure salaketa* izeneko lehen diska 1990. urtean argitaratu zuten, eta *Beldurrik ez* izeneko bigarrena, aldiz, 1990. urtean grabatu eta 1991. urtean argitaratu (Matraka, 2013).

Bi diska horien artean, hogeitabi abesti grabatu zituzten. Horietako zazpitan gai zentrala da genero problematika (*Lurraren gatzia*, *Deseo cautivo*, *Jone*, *Beldurrik ez*, *Que se dejen ver*, *Esperandome* eta *Regla y menstruación*), eta beste hirutan zeharka lantzen da gaia (*Ipuin berri bat*, *Gente gris* eta *El credo*). Matrakaren abesti bakar batek ere ez du kutsu negatiboa daukan genero problematikaren inguruko aipamenik egiten, eta beraz, aipuak dauzkaten hamar abestiak Mugimendu Feministarekin bateragarriak dira.

Beste taldeek ez bezala, Matrakak eduki anbigua duen abesti sorta bat dauka. Guztiak askatasunaren aldeko oihu bat direla argi badago ere, zaila da kanta horietan lantzen den gai zehatza identifikatzea. Are, gaztelaniaz abesten dutenean, maiz femeninoan hitz egiten dutenez, konplexua da espezifikoki emakumez ala era orokortuan hitz egiten ari diren jakitea. Hala, oro har, gogobetetzea atzeratzearen eta gozamina planifikatzearen ukapen gisa identifika ditzakegu abestiok (Herreros y López, 2013). Nolanahi, bistakoa da abesti horietan emakumearen askapen sexualari imintzio ugari egiten zaizkiola, eta aipu espezifikorik direla eta, Mugimendu Feministatik nabarmendu dugun bigarren borroka arloarekin bat egiten dutela.

Hauek dira sorta honetan koka ditzakegun abestien izenburu eta letrak: *Para ir a jugar* “*voy a hacer una travesura, desnuda como un animal*” eta “*quiero jugar*”; *Gente gris* “*no te fias de mi con estos pelos, no sabes de mi fuerza que es la libertad*”; *Esperándome* “*abre tus manos satisfecha, donde guardas tu mejor risas, tu grito más salvaje contra todo, tu rebeldía y tu fuego, vamos a andar por los caminos, sobrevivir ante la duda, recorrer juntas los rincones, y regresar tranquilas desnudas*”; *El credo* “*en el placer de nuestros pecados*” eta *Lauzoepen* “*etsaiari amore eman diozu, eta ez, ez zait batere gustatzen, ahaztu duzue non ibili ginen, han eta hemen jolasean, hemen ta hor korrika, hor eta han gustora, baino beti borrokan*”.

Bestetik, 80ko Mugimendu Feministatik nabarmendu dugun lehen borroka adarraren baitan koka dezakegun eta patriarkatuarekiko zein indarkeria matxistarekiko aurkakotasunaz hitz egiten duen bigarren abesti sorta daukagu. Bertan *Lurraren gatza*, *Jone*, *Ipuin berri bat* eta *Beldurrik ez* kokatzen dira. Hurrenez hurren, hauek dira kanta horien letrak: “*gudarien beldur naiz, egunero egiazko iraultza egiten, gizonaren aurkakotasuna jasotzen, eta hori iluntasunean geratzen da*”, “*oso gaizki dago, ondo dago, eta nola dagoen nik ez dakit, berak ere ez*”, “*urtez urte menperatuta gaude*” eta “*beldurrik ez dut, ta lotsarik ere ez, nik nahi dudana egingo dut, izaki guztiak berdinak gara, inor ez da besteak baino gehiago*”.

80ko hamarkadan, Mugimendu Feminista Hego Euskal Herrian egonkortzen joan zen heinean, ikuspuntu feminista geroz eta ikusgarriagoa zein indartsuagoa bilakatu zen. Hala esaten digute Alonsok eta Uriachek (2018: 59): “*en el movimiento punk también se empezará a visibilizar la mujer con actitud más agresiva, desinhibida y libre e intentará encontrar un sitio donde poder manifestarse libre y abiertamente*”. Zalantzarik gabe, sorta honetako abesti hauek autore horiek aipatzen duten jarrera horren bitartez, patriarkatuaren zein indarkeria matxistaren aurkako oihu bat dira.

Que se dejen ver lesbianen ikusgarritasun sozialaren aldeko abesti bat da: “*dos mujeres se aman, en los rincones sin dejar de sentir, oscuras miradas a su alrededor, ellos se aman, ellas también, que no se escondan, que se dejen ver*”. Kantak lesbianak subjektu politiko gisa artikulatzeko beharraz hitz egiten ez badu ere, argi dago, diskriminazio-egoera espezifikoko horren existentzia ikustarazteko abesti bat dela, eta beraz, Mugimendu Feministak 80ko

hamarkadan eduki zuen bilakaeratik nabarmendu dugun hirugarren ezaugarriaren baitan koka dezakegula.

Bukatzeko, “*y ahora estoy de marcha, menudo pastel*” dion *Regla y menstruación* abestia daukagu. 80ko Mugimendu Feministak hilerokoaren normalizazioaren aldeko borroka gailendu zen horietako bat izan ez bazen ere, eskubide sexual eta erreproduktiboen aldeko borrokaren baitan koka dezakegunez, abesti hau, zeharka bada ere, 80ko Mugimendu Feministatik nabarmendutako bigarren ezaugarriaren baitan koka dezakegu.

6. ONDORIOAK

Ondorioak plazaratzen hasi baino lehen, kontuan izan behar dugu, batetik, irakurri berri dugun lan honetan bost musika talde soilik aztertu ditugula. Bigarrenik, talde horiek garaiko punkaren ordezkari esanguratsuak izanagatik, lan honetatik ondorioztatutakoa ezin dela mugimendu osora hedatu. Hirugarrenik, gure lanak aztertu duen emakume taldeen ehunekoak altua dela eta, ezin dugula genero problematikak 80ko Euskal Herriko punkean eduki zuen presentzia kuantitatiboa zenbatekoa izan zen ondorioztatu.

Dena den, mugatua bada ere, eskuartean dugun lan honen ekarpena probetxugarria izan daitekeelakoan gaude: izan, ikerketa lerro berri baten abiapuntutzat har daitekeelako, edo izan, bertatik ondorioztatutakoa auziaren inguruan ideia orokor bat eskuratzeko baliagarria zaigulako. Segidan, behinik behin, abiagune gisa har dezakegun ondorio hau sakontzen saiatuko gara: oro har, gaia oso modu puntualean landu zela, areago, testuingurua zein punkaren inguru soziala nahiko matxistak zirela.

Onartu behar dut, hasieran planteatutako hipotesia ez zela guztiz zuzena, eta, emakumeen eta gizonen taldeen artean ezberdintasun nabarmenak identifikatu baditugu ere, ezin direla bi talde bereizi bezala sailkatu. Hau da, emakumearen iruditegi feminista bat hedatzeko helburua duten abesti gehienak emakume taldeek sortu bazituzten ere, gizonen taldeetan ere topatu dugula baten bat. Eta bestetik, emakumearen iruditegi patriarkalaren erreprodukzioa,

nagusiki, gizonen ekoizitako musikan identifikatu badugu ere, emakume taldeen letrek ere, jasotzen dutela aipu negatibo solteren bat.

Orokorrean, ikusi dugu, aipatutako bi iruditegi horietako bakoitza erreferentziak egiteko modu bati lotua egon dela: emakumearen irudi patriarkala eskaintzen duten aipu gehienak garrantzia handirik eman gabe egindakoak direla (abestian pisu handirik ez duten aipu zehatzak), eta emakumearen irudi feminista eskaintzen duten abestiak, berriz, eta garaiko emakumeek bizi zuten zapalkuntza egoeraren aurkakotasuna adierazteko berariaz idatzitakoak direla (gai zentral gisa lantzen dutelako). Lehenengo ereduak, gehien bat, gizonen taldeetan topatu dugu, eta bigarrenagoa, aldiz, nagusiki emakumeek osatutako taldeetan. Hala, Pascualek esandakoaren aurka, punka ekoizten zuten emakumeek, gizonekin alderatuta, motibazio propioak zituztela baieztatu dezakegu, bereziki, emakumeen sexu askapenaren alde borrokatzea.

Azken hauen edukiak, gainera, garaiko Mugimendu Feministak sustatutako emakumearen iruditegiarekin bateragarria izan ohi da. Jazoera horretatik ezin dugu lotura organiko bat existitzen zenik baieztatu, baina, ezbairik gabe, garaiko Mugimendu Feministaren testuinguruak zuzenean eragin zuen 80ko punk emakume taldeek lantzen zituzten gai eta edukietan. Gainera, kontuan izan behar dugu talde batek sustatzen duen emakumearen iruditegia ez dela abestien letretan hasten eta bukatzen: taldeen emankizunetako elementu guztiek, edo gehienek behintzat, ezarritako genero rolen erreprodukzioa ala aurkakotasuna eragiten dutelako. Eta beraz, punk emakume talde horien jarrera probokatzailerak emakumearen iruditegi askea sustatzen zuenez, haien portaera Mugimendu Feministak zeuzkan borroka-moldeen baitan koka dezakegula.

Ondorio orokorrekin bukatzeko, esan behar dugu, azterketa honetan ez dugula punkaren joera nihilistagoen eta borrokalariagoen artean emakumearen iruditegiari dagokion trataera ezberdindurik identifikatu. Jarraian, aztertutako taldeen ondorio propio batzuk aipatuko ditugu.

R.I.P. sektore nihilista eta autosuntsitzailearen parte izan zen, eta era berean, taldearen abestiak Mugimendu Feministarentzat nahiko suntsitzaileak izan ziren. Zehatzago esanda,

R.I.Pek gutxitan egiten dio genero problematikari aipamena, eta egiten dionetan, emakumearekiko tonu erasokorra edukitzen dute. Dena den, salbuespen gisa, *El violador* abestian bortxeketen aurka adierazten duena Mugimendu Feministak aldarrikatutakoarekin bat datorrela baieztatu dezakegu.

Kortatu sektore borrokalariaren baitan kokatu zen talde horietako bat izan zen. Egiten dituen hiru aipamen ezkorrak oso puntualak eta sotilak diren arren, bere ohiko jarrera barneratzailea dela eta, deigarria da Kortatuk emakumearekiko zentzu negatiboa duten esaldiak erabiltzea. Hala ere, egindako letran azterketan oinarrituta, punk talde honek emakumearen iruditegi patriarkala erreproduzitu zuela ondorioztatu dezakegu, eta beraz, Mugimendu Feministak sustatutakotik nahiko urruti kokatu zela.

Beste talde batzuk emakumearen askapenaren alde lan sistematikoagoa egin bazuten ere, *Vulpes* eta, bereziki, *Me gusta ser una zorra* abestia dira egungo erreferente feminista punk ezagunenetakoak. Kantaren edukiaz gain, taldearen jarrera eta estetika ere funtsezko elementuak izan dira ikur horren sorreran. Horregatik, joera nihilista duen *Vulpes* taldeak eskaintzen duen emakumearen iruditegia Mugimendu Feministak sustatzen zuen emakumearen iruditegiarekin bat datorrela baieztatu dezakegu.

Aztertu ditugun *Belladonaren zazpi* abestietako lauk genero problematikaren aipuak jasotzen dituzte, bistakoa da, hortaz, taldeak auziari garrantzia handia ematen ziola: bereziki, askapen sexualari. Nahiz eta, *Belladona* joera borrokalaria daukan talde bat izan, *Mambrú* abestian kutsu homofoboa duen aipu bat egiten du. Hala ere, orokorrean, *Belladonak* 80ko Hego Euskal Herriko Mugimendu Feministaren edukiarekin bat egiten duela baieztatu dezakegu.

Bilakaera bat ikusten da Matrakaren bi disken artean: lehenengoan genero problematika gai zentral gisa lantzen duen abesti bakar bat idatzi bazuten ere, bigarrenengan bost abesti idatzi zituzten. Hala, Matrakaren bigarren diskaren abestien erdiak genero problematika gai zentral gisa lantzen du. Bestalde, bereziki azpimarragarria da Matrakaren bi diskoetan ez dela emakumearekiko erasokorra den aipu bakar bat ere jasotzen. Beraz, ez bairik gabe baieztatu dezakegu, joera borrokalaria zuen Matrakak garaikide izan zuen Mugimendu Feministaren ezaugarriekin zein aldarrikapenekin kidetasuna izan zuela.

Esandako guztia kontua hartuz, eta ikerketa osotuago baten faltan, zera baieztatu dezakegu 80ko punk taldeen inguruan: gizonen taldeek, oro har, genero problematika kutsu erasokorra duten aipu puntualen bidez lantzen dutela, eta emakume taldeek, aldiz, genero problematika, eta bereziki, emakumearen sexu askapena gai zentral gisa landu ohi dutela. Horrela, gizonen taldeek emakumeen iruditegi patriarkala erreproduzitzen zuten bitartean, emakumeen punk taldeek Mugimendu Feministaren aldarriak bereganatu eta emakumeen iruditegi feminista sustatu zutela.

7. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

Alonso F. y Uriach J. (2018). *Larga vida a R.I.P.*. Barcelona: Tóxico Records.

Altuna M. (2010). *Emakumeak Punk-Rock*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Ikerketa feministak eta generoko masterra, Euskal Herria.

Aranguren M., Epelde E., eta Retolaza I. (2018). *Gure geanologia feminista: Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Emagin Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentro feminista.

Belladona. (2020ko maiatzaren 12a). Hemendik hartua: <http://euskalmusikakatea.blogspot.com/2013/12/belladona.html>

Del Amo I.A. (2016). *Party & Borroka: jóvenes, música y conflictos en Euskal Herria*. Txalaparta: Txalaparta S.L.L..

Herreros R. y López I. (2013). *El estado de las cosas de Kortatu: lucha, fiesta y guerra sucia*. Madrid: Ediciones Lengua de Trapo S.L..

Matraka. (2020ko maiatzaren 12a). Hemendik hartua: <http://no80s-gruposnacionales.blogspot.com/2009/02/matraka.html>

Matraka - las chicas son guerreras. (2020ko maiatzaren 12a). Hemendik hartua: <http://andoaingojubilatuak.blogspot.com/2013/11/matraka-las-chicas-son-guerreras.html>

Mendieta A.M. (2019). *Rockeras vascas aquí y ahora*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Euskal Herria.

Mota D. (2017). *Los 40 radicales: la música contestataria vasca y otras escenas musicales: origen, estabilización y dificultades (1980-2015)*. Bilbao: Ediciones Beta III Milenio, S.L..

Pascual J. (2015). *Movimiento de resistencia años 80 en Euskal Herria: contexto, crisis y punk*. Tafalla: Txalaparta S.L.L..

López E. (2011). “Emakume in Rock”. *Historia del Rock Vasco: edozein herriko jaixetan*. Vitoria-Gasteiz: Aianai.

Valero O. (2019). *Euskal Langile Andreak*. Bilbo: Ipes.

Vulpes. (2020ko maiatzaren 12a). Hemendik hartua:
<http://musicapunk.net/grupos/vulpes.php>

Zabala B. (2005). *Movimiento de mujeres: mujeres en movimiento*. Tafalla: Txalaparta S.L..